

Prentsa-oharra

IK4-TEKNIKER eta GIROA VEOLIA elkartu egin dira negozio eredu berriak probatzeko energiaren eremuan

- ▶▶ *GIROA VEOLIAk lankidetzan modu berriak esploratu nahi ditu, energia kudeatzeko zerbitzu-enpresa gisara*
- ▶▶ *Bi erakundeek ibili nahi dute elkarlanean energiaren eremuan irtenbide berriak garatzeko unean*
- ▶▶ *Bi erakundeen arteko marko egonkorra formalizatzea ekarri du hitzarmenak, hainbat proiektu europarren inguruan elkarlanean aritu baitira aurretik*

(Eibar, 2016eko azaroaren 2a).- IK4-TEKNIKER zentro teknologikoak hitzarmena sinatu du GIROA VEOLIArekin. VEOLIA multinazionalaren filiala da GIROA, eta energia-zerbitzuetan dago espezializatuta. Bada, energia-eraginkortasunaren eremuan bien arteko elkarlanean ingurunea sortzeko xedez sinatu du akordioa.

Sozietate bat sortuz amaitu da bi erakundeek sinatutako hitzarmena; besteren artean, Eibarko zentro teknologikoaren instalazioetako energiaren kudeaketari eta mantentze-lanei zerbitzu emateaz arduratuko da, aipatu instalazioen efizientzia optimizatuz horrela.

IK4-TEKNIKERek bere instalazioak eskainiko ditu “Living Lab” modura, bataren eta besteren xedeak bilduko dituen esperimentazio-gunea sortzeko.

Bestetik, zerbitzu berriak ezartzearen harira eskuratutako etekina berriro inbertitzeko konpromisoa jaso du hitzarmenak, eta hala egin beharko dute bi erakundeek, energiaren eremuari zuzendutako garapen teknologiko berriak bilatzeko asmoz.

Era berean, Gipuzkoako Parke Zientifiko eta Teknologikoan - Eibarko campusean dauden egungo eta etorkizuneko enpresei energia kudeatzeko zerbitzu horiek emateko asmoa dute bi erakundeek, eratu duten sozietatearen bidez.

Haziz doan lankidetzaz

IK4-TEKNIKERek eta GIROA VEOLIAk sinatu duten hitzarmenak elkarlanaren esparruan urratsa ematea ekarri du. 2016an, hiru mugarrirekin amaitu da lankidetzaz hori.

Alde batetik, **INDIGO proiektu** europarra dugu, GIROA VEOLIA duena buru. Barruti-sare termikoen eremua berritzeko asmoa dauka. Proiektu aitzindaria da, eta hotz-sare efizienteagoak, adimentsuagoak eta merkeagoak bilatzen ditu, autoikaskuntza-algoritmoetan oinarritutako kudeaketa-sistema igarleari esker. Sistema horrekin, zehaztasun handiagoz planifika eta kontrola daitezke eskaria, prezioak eta meteorologia bezalako alderdiak, aipatu sareen errendimenduari eragiten baitiote zuzenean.

Bestetik, **HIT2GAP proiektu** europarrean elkarrekin hartu dute parte bi erakundeek. Eraikinetako energia-kontsumoa optimizatzea ahalbidetuko duen softwarea sortzeari begirakoa da hori. HIT2GAP proiektuarekin, datuak tratatzeko tresna aurreratuen belaunaldi berria garatuko da, eta eraikinetako konfort maila hobeezinak kontrolatzea eta konfort maila horiek energia-eskari planifikatuarekin alderatzea ahalbidetuko dute tresna horiek.

Azkenik, hubgrade (instalazioak monitorizatzeko adimendun kontrol-zentroa) berriak eskaintzen duen gaitasun teknikoa baliatzeko asmoa dauka ekimenak. Zamudioko Parke Teknologikoko instalazioetan inauguratu da aipatu hubgrade-a duela gutxi.

IK4-TEKNIKERi buruz

IK4-TEKNIKERek 30 urtetik gorako esperientzia du teknologia aplikatuan eta teknologia hori enpresara transferitzen, eta espezializazio-maila handia lortu du lau alor handitan (fabrikazio aurreratua, gainazal-ingeniaritza, produktu-ingeniaritza eta IKTak). Horri esker, gaitasuna du bere abangoardiako teknologia bezeroen beharren zerbitzura jartzeko.

GIROA-VEOLIAri buruz

Veolia multinazionalaren filiala da GIROA VEOLIA. Hirien eta enpresen garapen jasangarrirako irtenbide berritzaileak hornitzean dago espezializatuta. Horretarako, hirietako hotz- eta bero-sareak, industriako utilitateak eta energia-zerbitzuak kontrolatzen ditu eraikinetan eta instalazioetan, eta mantentze-lanak egiten horietan.

Informazio gehiago

////////////////////////////////////

IK4-TEKNIKER | Itziar Cenoz

Itziar.cenoz@tekniker.es | tel.: 943 256 929

////////////////////////////////////

GUK | Javier Urtasun

urtasun@guk.es | tel.: 637 273 728